



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokian munduko liderista onenetakotzat jotzen den baritono alemaniar Christian Gerhaherren emanaldia izango dugu

- Gerold Huber musikari ospetsua pianoan lagun duela, abeslariak asteazken honetan, otsailaren 10ean, Schumann eta Debussyren ziklo osoekin osatutako egitaraua eskainiko du.

Bilbo, 2021eko otsailaren 8a.- Javier Camarenak joan den urtarrilaren 21ean lirikaren munduaren zaleei utzitako zapore onaren ondoren, urteko bigarren nazioarteko hitzordu musikal handia iritsiko da orain Arriaga Antzokira, Christian Gerhaher baritono alemaniarren eskutik. Etzi, asteazkenean, otsailaren 10ean, askoren ustez munduko lideristarik onena denak bere ahots- eta interpretazio-bikaintasuna erakutsiko ditu Arriagan, Gerold Huber ospe handiko musikari alemaniarra, errezital ugaritan Gerhaherren ezkutari leiala dena, pianoan lagun duela. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

Christian Gerhaherrek baritono lirikoaren ahotsa du, leuna, eta, gainera, interpretazioan buru-belarri kontzentratzeko ahalmen goresgarria, poesia eta musikaren edertasunari etekin handiena ateratzeko. Arriaga Antzokira dakarren egitarauan, bereziki gogoko dituen bi egileren ziklo osoak eskainiko ditu: Schumann eta Debussyrenak. Hitzorduak, beraz, maila handikoa izango denaren itxura du: benetako gozamen musikala.

Nazioartean ospetsua den abeslaria

Christian Gerhaher gure garaiko liderista onenetakoa da. Dietrich Fischer-Dieskau eta Elisabeth Schwarzkopf herrikideen bidearen jarraitzailea da, eta konpositoreen katalogo oso zabala hartzen du, batez ere alemaniar eremukoena: Mahler, Schubert, Schumann, Strauss eta Wolf-ena.

Kontzertu eta errezitalak eskaintzeaz gain, Christian Gerhaher interpretatzaile ospetsua da operaren agertokian ere, eta hainbat sari jaso ditu, hala nola Laurence Olivier Award saria eta Der Faust antzerki-saria. Bere grabazioak ere goraiatuak izan dira kritikaren eta ikusleen aldetik, sari garrantzitsuak lortuz. 2018ko *Frage* albumarekin Gramophone saria irabazi zuen, bai eta Opus Klassik ere, Alemaniako Urteko Abeslari gisa.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 16 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus